

JOAKIN LIZARRAGAREN “ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO ITZGAIAC” LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Donostian, 1984, Urriak 26

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak:

Gaur kaleratzen den honekin “Euskararen Lekukoak” liburu-bildumak bere X. zenbakia jo du. Liburuak “Ongui iltzen laguntzeco itzgaiac” du titulua, eta Joakin Lizarraga, Elkanoko apaizarena da. Argitarapen hau ospatzeko bildu gara gaur hemen.

Badira sei urte Euskaltzaindiak liburu-sorta honi hasiera eman ziola. Eta hain zuzen, lehen zenbakia ere Lizarraga Elkanokoari eskainia izan zen. Baita IX.a eta oraingo hau ere hari berari eskainiak dira.

Zer dela eta erabaki ote zuen Euskaltzaindiak liburu-bilduma hau sortzea eta bultzatzea? Ez ote daude lehendik ere gure artean euskarazko liburuen sortak? Kulis-ka Sorta, Auspoa, Gero, Jakin, Lur, Herria, Hordago, Labayru, Aurrezki Kutxeta-koak eta abar... Bai, noski. Eta guztiei geure esker ona zor diegu. Baina halarik ere, idazle zahar askoren lanak eskuragaitz izan ohi dira gehienetan, edizio berrien, gaurkotuen eta ongi eginen faltaz, eta hori huts nabaria da, zeren euskara sustraitik eta euskalki guztietan ezagutzeko hor baitira iturriak.

Gure liburu-bilduma honen hasierak ez dira errazak izan. Begien bistan da edizio hauek ez dituztela beren kostuak ordaintzen, ez direla gehiegi saltzen. Besteak beste, diru arazoa ere hor da, beraz.

Orain arte 10 agertu direla esan dut. Hona hemen zein autoreri eskainia izan den bakoitza. Lehena Lizarraga Elkanokoari, bigarrena Dextepareri, hirugarrena Etxeberri Ziburukoari, laugarrena (bi tomotan) Mendibururi, boskarrena Lapeyreri, seigarrena Egiategiri, zazpigarrena Belapeyreri, zortzigarrena Gasteluçar-i, bederatzigarrena Lizarraga Elkanokoari, eta hamargarrena ere hari berari. Beste batzuk bide-tan daude, noski. Esan behar dut, gainera, liburu bakoitzaren argitarapena ez dela egiten hartako batzordeak banan-banan aztertu eta baimena eman arte.

Nik espero dut bilduma hau tarrotuz eta handituz doan neurrian, tresna guztiz baliotsua bilakatuko dela. Ikasle, irakasle eta, hitz batean esateko, euskara sustraitik menderatu nahi dutenentzat, hor izango da harrobi bat paregabea eta ezin utzizkoa.

Baina gatozen harira; gaur ospatzen hari garen liburuari buruz zerbait esatera, alegia. Lizarraga Elkanokoaren lana, gaur lehenbiziko aldiz argia ikusten duena, dugu begien aurrean. Edizioaren prestatzailea Aita Francisco Ondarra, euskaltzaina.

Zinez esan behar dut edizio kritiko bat guztiz ereduzkoa paratu digula prestatzaileak. Hirurogei orrialdedun sarrera aberats-aberatsa ematen digu aurreko aldean. Bertan idazle honek darabilen euskararen gramatika goitik behera aztertzen eta azaltzen zaigu: idazkera, fonetika, morfologia, joskera. Gero atzekaldean baditu beste hirurogei eta hamar orrialde autore honen hiztegiari, aditz-jokoei eta abar eskainiak.

Egia esan, laguntza honekin guztiz erraz uler daiteke autore hau eta bai beronen euskalkian idatzitako beste testuak ere. Jakina denez, Lizarraga Elkanokoak darabilen euskalkia goi nafar hegoaldekoa dugu.

Hain zuzen, euskalki hau zer-nolakoa den —edo zen— jakiteko, Lizarraga Elkanokoa dugu iturririk edo lekukorik aberatsena. Gure bilduman jadanik agertu diren liburuak ikusi eta, esan dezakegu euskalki hura argi eta garbi sortaldekoa dela eta lapurdieratik oso hurbil dagoela, nahiz eta berezitasun batzuk izan, bestalde.

Liburuaren edukina. Liburu honetan dagoena ez dira predikuak edo sermoiak, zenbaitek lehen kolpean usteko lukeen bezala. Apaiz jainkotiar eta gartsu haiek berebiziko axolarekin hartzen zuten gaixoei atenditzeko eta laguntzeko kargua. Eta horretarako berariazko liburu bat egin zuen Lizarraga Elkanokoak, gaur arte argitara gabe egon bada ere. “Itzgaiac” dio tituluak, esan nahi baita, apunteak, materialak. Beraz, esku liburu edo gida bat da, apaizentzat egina, gaixoekin egin behar duten lanaren lagungarritzat. Gaixoei egin behar zaizkien ikustaldiak, esan behar zaizkien hitzak, exortuak, sakramentuak hartzeko nola prestatu behar diren, nola ongi hiltzen lagundu, eta abar: zeregin guzti horietarako gaiak eskaintzen ditu.

Egia esan, gure euskal literaturan bada lehendik ere horrelako lanik. Aita Kardaberazek badu gai hontaz liburu bat. Jose Kruz Etxeberría frantziskotar oiartzuarak ere bai beste bat. Beharbada, ongi legoke hiruon artean egon daitezkeen harremanak eta aldeak aztertzea, baina ni ez naiz lan horretan sartuko.

Neri ez zait gelditzen Aita Ondarrari gogotik eta bihotzetik zorionak ematea beste lanik. “Bai, zorionak, txaloak eta eskerrak zuri, gure bilduma edizio ongi egingidako honekin ohoratu baituzu!

Eta zerorri uzten dizut hitza, liburuari buruz berariaz mintza zakizkigun”.

JOAKIN LIZARRAGA ELKANOKOAREN “ONGUI ILTZEN LAGUNTZECO ITZGAIAC” LIBURUAREN AURKEZPENA

Donostia, 1984-X-26

Frantzisko Ondarra

Euskaltzaindiak sortutako EUSKARAREN LEKUKOAK izeneko bilduman hamargarren tokia hartzen du orain aurkezten ari garen liburuak. Honen aurrekoa ere Lizagarrena da; baita bildumari hasiera eman ziona ere. Ez dezala, ordea, inork pentsa argitalpen hauekin Elkanoko Bikarioaren uzta agortu denik; hau hastapena besterik ez da, hain ugariak direlarik beraren lanak.

Eskuidatzia

Eskuizkribua Damaso Aitak aurkitua da, beste birekin batera. Elkanon aurkitu zituen, 1920. urtean, Migelena deitu Lizarragarren sortetxean. Kodize eder bat da, larruz ederki josia, 150 × 110 mm. luzera-zabaleran. Guztira, 318 orrialde ditu, aitzineko aldetik bakarrik zenbatuak; 50. orriaren atzetik beste bat, guk 50 bis bataiatzen duguna, itsasi duela autoreak. Ez dago orrialderik bat ere idatzi gabe, eta den-denak daude bete-beterik, gure bikarioak egin ohi duen bezala. “Azquenic eguina” 1807. urtean da; beraz, beste erredaktziorik ere izan zuen.

Edukina

Izenburuak berak aditzera ematen duen bezala, eriei ongi hiltzen laguntzeko gaiak dira: ezindurik ohean datzan eriarri zer esan izateko behar orduan “Apez-Aitac”. Hasieran eta bukaeran zenbait orrialde latinezko pasartez betetzen dira, eskritura sagratuetatik eta sanduetatik bereziak. Berak dioen bezala, “Latinez parátuac dire berárias, ez alá errateco eriarri, ez, baicic oroigarritáco memoriarén amóres, obéqui alá oroitzecó errannaidénas”.

Liburuaren helburua hau da: Prestatu eria Elizako sakramentuak hartzera, horretarako begien aurrean ipintzen zaizkiola Jaungoikoak egin dizkion faboreak; lagundu eritasuna ongi eramaten eta mogitu bizitza sekulakoa desiratzera, hiltzea ontzat hartzen duela eta Jainkoaren beldur humil konfiatua daukala.

Bihotz zabal eta biguna erakusten digu Lizarragak. Ez du eria Jaungoikoaren haserre eta infernuko tormentuekin mehatxatzen, ez dizkio bere bekatuak gogora ekartzen; baizik eta gogorazten dizkio, batez ere, Harek, gizon eginik eta gurutzean hil arteraino, gizonarengatik jasan zituen neke-penak. Horrela eriarri konfiantza nahi dio eman, ez beldurra.

Gure argitalpena

Gure edizione honetan ahalegindu gara, eskuidatziaren idazkera ahalik eta zehatzena ematen: letrak, azentua, etab. Hala ere, hartan hain sarri agertzen diren hitz laburtuak deseginik idazten ditugu, aldi bakoitzean adierazten dugula hori egin dugula. Besteak beste, hau izan da gure arrazoibidea desegin ditugun laburpenen berririk zehatzena emateko: azentuaren arazoan ere baliagarri izan dadin orain arte gorderik zegoen testu hau.

Lizarragaren testuak 183 orrialde betetzen ditu edizione honetan. Beraren aurretik *Sarrera* labur bat eta *Gramatika* laburpen gisako bat ipini ditugu, idazkera, morfologia eta sintaxia ukitzen ditugula bertan. Hau egin dugu, sinestaturik liburu honetako gramatika fenomenoak Lizarragaren gramatika baten adibide jatorrak direla, eta kontuan harturik testuaren laburra. Ez dugu dudarik egiten, gauza asko eztabai-dagarri gertatuko direla, eta beharbada ausartegiak izan garela.

Testuaren ondotik *Hiztegia* dator, aurkitu ditugun hitz guztiak sartzen ditugula, askotan beren erabilera ere ematen dela.

Aditz-jokoak datoz hurrengo. Aurkitu ditugun guztiak, beren ondoan Euskaltzaindiak onaturik dituen adizkiak jartzen direla. Noizean behin beren testu-ingurua ere ematen da, esangura hobeto uler dadin.

Azkenik, *Bibliografia* azaltzen da: Lizarragaren eskuidatzen zerrenda, argitaratutako lanak, eta berari eta beraren euskalkiari buruzko lanak.